

Ja, ja, ja

Hau da umorea! Zzzzeeeelan zabiltzate?

Badatoz, badatoz, Aratusteak! Badakizue zer diren Aratusteak, Inauteriak, Karbanalak? Hitz bat baino gehiago mundu osoan ospatzen den festa bera adierazteko. Bai, ospatzeko moduak ez dira berdinak, baina guztietan mozorrotu egiten gara eta gure tristurak albo batera uzten ditugu.

Euskal Herrian pertsonaia bereziak ditugu: atorrak, joaldunak, Miel Otxin. Inauteriak herri handietan eta txikietan, guztietan, ospatzen dira. Batzuetan urtarrilean ospatzen dira, beste batzuetan, otsailean.

Orain mozorroa prestatu behar duzue, jantzi eta kalean ibiltzeko. Gustatzen zaizue mozorrotzea? Pirata jantzi zaitezket, edo pailazo.

Ea zer ateratzen zaizuen.

Horrekin batera dantzak ere presta ditzakezue.

Bururatzen zaizuen
hezitzaileari proposatu
eta aurrera!

Lorentxo

